



ABAURREGAINA

ABAURREGAINA

Segundo Aroztegi eta María Arozarena, Kixketenekoak

Ni, eta, esto... hemengo Kixketena, Aburreko Kixketena, esto... ta ene izena Segundo Arostegi. Pues, geben eta Eguberriak eta, klaro orei duela berrogei urte, pues, eztu konparazioik e ez, hori duela berrogei urte, Eguberriak izaten zire puskan pobreago eta hemengo tierran, orei erraten dugu eta bizia zer daola baia eztu konparazioik ere; orduan bizi gine pobre, pobre, hori bai eta hiltzen ginuen txerria eta Eguberrietako eta zera baia ardoa eta likore ta hoeteik eta apenas ibiltzen ze, eso aguardiente pixka bat eta koñaka eta gauza hauek arront eta... Pasten ginuze esto... igual orei bezein alegre edo... pasten ginuze gauren zerera eta gauren klasera, pasten ginuzen eta alegre, klaro, pues eta ezbaiginue ezaundu guk eta, lehen eta gauza hobeik pues dibertitzen ginen eta igual orei beino gehiao, konfiantza gehiaoz e, eta etxetan, eta elkarrekin orei beino konfiantza gehiaoz orduan.

Ene eta gazte denboran ez gine biltzen gue len txire (?), hor libro hortan eta daon tia horrek, horrek bazazki eta kantu pollitak eta Eguberrietako Amabirjinein zerak baia utzi zire, utzi zire, zera, ezginue izan delikadeza eta zertzeko, eta hartzeko eta zera eskribitu eta kantuak eta, tiak eta zenbat urte zitina hil zelaik?

Lauretan hogeita bida.

... bida, eta oino eta memoria ona zauke ta kantatze zitue.

– Baina galdu da.

– Bai galdu da, galdu da, bai, ezta zerik, hor baze eta estankoan, aixtian erran duzun bezala eta erran dauzunak eta zera gia zertzeko, pues hor baze Amaberkina bat baze, eta biziki pollitak eta kantuak eta euskaras Amaberkina hari, baia galduak dira.

Ene tio batek ze harek zazki guziak ene tio batek eta biltzen zitue bere kideko ta gaztexasoko guziak Amaberkin altzin... o esto Eguberri altzineko egunetan eta ensaiatzen zituzte kantuak eta gero Eguberrietan kantatzen zituzte gaek, ta zeo einik, ona, elizatotto bat, einik zeo, ta gan Amaberkina, ta gorra hotzak izoztuik elurrean gor egoten zire ensaiatzen garen altzinean, baia gero guk eztitugu ikasi, eztitugu ikasi...

Nik aituak tut anitz, eta zera baia gazte baintze, pues, ez nue, ez tut izan enpeñuik eta... Pues, hori bertzeinaz pasten ginuen eta orei beino, orei beino... pixka bat eta zertuik gaude oreiko denboretan, eztugu elkar aguantatzen, ezta familietan galako, galako unioneik nola len, ez, ez, ezta, eta konturekin eta kanpoko etxera fateko orei eta oin (?) behar da eta atarian, oin behar da.

Len ez, len sukaldera laister.

– Eta orain txerria hiltzeko garaia edo denbora heldu denean laguntzarik ez da?

– Bai, gori bai, gori konserbatzen da, familia...

... indarra irukitzeko eta, konserbatzen da gura gala-gala, baia emeki-emekia eztaikit... akabatuko da komunikazio gori ere azkenean, bai, ya fan da unione gori ta amistade gori ta, orei ezta tratuik gala, ezta tratuik, ezta konfiantzik, denek, eztaikit inbidia edo eztaikit zer hartuik dauken jendeak, bertze bizi klase bat, ta orei ez tute tratuik zertzen.

– Baina lehen ez al zen herri honetan bizilagun gehiago orai baino?

– Lagun yago?, bai, bai, bizi ziren... Oino bada jende... Oino ezta...

Gazteria abiatu da kanpo, eta kanpo fanaskeos bertze bizi klase bat, ya etxean oreikoek, telebisionea, bideoa, eta xateko tenorean ere ezta komunikazio, ezta hona zerik unioneik arrato bat elekan egoteko, ez, gori gori segido, eta ya ezta tratuik, ezta, lengo tratu gura falta da. Ta lenago honek erraten zuena, eguberrietan ta, etxe batetik bertzera fan ta gan txokolatadak eta egin eta musika imintzen tzute herrikoek igual ta, alegre, ongi, orei ja, orei atratzen dira geendik berant etxetik, herritik hamabien ondoan atratzen dira nauten tokira ta goizeko seietakoan etxera; nik zer dakit gor non ibiltzen diren., Ta herrian ezta animazio gura, t'ezta alegria gura, ta ezta...

– Oinez hemendik Otsagira?, eta nondik barna Eaurta...

– Karreteras, karreteras, eta baze alkoztetto bat gor laurtatik Ezkaroza atratzeko, alkoztetto bat, ta gura ikasi ginduelaik, gandik, baia bertzeinaz, karrika, karretera-karretera, oines Otsagira, eta dientistaingana, haginein atratzera, ta atra hagina eta baia egunean, baia goixtar buelta eginik gandik oines.

– Zenbat orenetan?

– Zenbat orduetan?, ah, ordua eztaikit, eta ni orduan faten nintze ta ba baize tienda Sanchezenian eta Kanbrainian, pues beti zerbeit erosten nue gaetan, hara!, gartik bada ezautzen nitue tienda gaek eta gaetan erosten nue zerbeit ekartzeko, hara!...

– *Eta ferietara?*

– *Ferietra ere behin, behin egon niz Otsagin, gende fan ze multsu bat eta ni ere bai, fan nintze, Otsagiko ferietra, bai, eta, pues, orduan bai, orduan, pues, eguna pastu gindue ta kamionean batean fan gine eta kamion gartan itzuli gine guziak, montioan leher fan baigine koadrilla, eta orduan ongi baia bertzeinaz naurou solo fateko geendik gara ibilis eta ibilis etorri yore gabe...*

– *Eta zer zen feria hura?*

– *Feria?, pues, feria gartan ze behi ta ardi ere bai, behi ta ardi ere bai, bai bai, atratzen ze ardi ta ahuntz eta behi, ta bihor zenbeit ere bai, bai bai, feria ze guzietaik orduan, ni faten nintzen denbora gaetan...*

– *Eta ze fetxatan edo noiz egiten dute?*

– *Gori, gori, ni gazte nintzelaik, pues zemat, nik izain nitue nik hamasei urte?, nik orduan?, hamasei urte edo gala, hamasei hamazazpi urte nik orduan, egon nintzelaik feria gartan, eta faten nintzelaik hortzen zertze gartara (---) baita re, hala hamabortz hamasei, hamasei hamazazpi urte goetan.*

– *Eta noiz galdu zen ba Otsagabiko feria?*

– *Berantago, ba oino berantago izan ze, bai, bai, izan ze berantago oino.*

– *Izein du, pues, hogei urte edo gala, eta, apenas, gauza gutia zertu beita, baia ordu artio feria ederrak eta, setienbrean, eztakizu noiz izaten diren festak, eta, Otsagabikoak?, kanbiatuik daude orei edo?, beti, betiko... toki eta zerean..., pues orduan izaten zire feriak ere, eta primaberan eta maiatzean, maiatzean baitare izaten zire feriak, bi aldiz.*

– *Nongo jendea biltzen zen?*

– *Oh, herri goetako guzietaik, eta geendik ere bai, beitigotik ere...*

– *Ba, Aezkoa balle guzitik, eta gero Salazar, bueno, Ronkaldik eta guzietaik.*

– *Ademas, toki gartan, karretera gura Sanchezen ta Kanbrain ta karrika gura guzia... leher jende eta gero ta ugalde bazter gortan, leher jende taazienda ta, egun propio izaten ze gura...*

– *Baina bestarik bazen?, musikarik edo halakorik?*

– *Larrazkenean bai, eta zera, festak, musika ederra baita re.*

Ni akordatzen niz larrazkenekoaz... gero primadakoan ni ez niz egon baia larrazkena ze ni egon nintzena.

Dantzariak eta setienbrean eh, setienbrean.

Ta gero, pues, zire..., pelukeria ere gan gindue, gara fan behar gindue pelukeriara ere, ta orduan pelukeriara eze normahi faten, eta gu, guk etxetik ez gindue permisoik pelukeriara fateko ta, faten gine estalgunean, ta artsean etxera etorri ta gala egon behar gindue, gala piska bat zertuik amak ez ikusteko egin ginduela zerbeit.

Bai, eiten ze orduan oihal, ardien ileas oihal eiten ze, hariak ein ta oihal, ta ni faten nintze gan ene barrideko emazteki bat franko zarra (---) eta faten gine, orduan faten ginelaik oihalein egitra, faten gine mandoetan iganta, faten gine, gartan ermaten ginduze hariak eta, ta iganta faten gine mandoetan, ta ni bida edo hirur aldis edo egonik nago gaetan, harekin fanik gara, ta orduan ze, gala ze bizi gura ta, baia bizi, bizi, trankila eta ona, ta orduan ez gindue yorkekin inbidiarik, guzioak gala gindaitze, eta orduan gine denok amigos.

– Otsagiarrak señoritoagoak al ziren?

– Bai, bai, bai, señoritoak..., geendik Iruñera bezala, diferentzia gori, ona, geendik Otsagira, geengoak gala baia gero gara fan ta bertze bizi klase bat.

Otsagiarrak, Otsagiarrak eta Aburregeinekoak, eta, zer ona zute, tratu ona, baia gaztek eh, mutil-neskatoek, baia lurtan, lurtakoak Otsagabiakin beti...

Aburrekoekin ere ez anitz, Aburrekuekin ona dia laurtakuak!, gala gala, ez baia Otsagikuak bai, baia laurtakuak ez, laurtakuak beti zire fanfarronakoak, bara (---) gala berak solo tiesoska.

Otsagin ze bertze ambiente bat eh!, Otsagin ze bertze ambiente bat, hara igual nola denbora gaetan, pues geendik Iruñera bezala...

Badakizu eta zera, herri handietan, «villak» eta, pues, titulo hori zue eta Otsagabik, titulo hori zue.

Industria, tienda ta goetaik, bai, tiendak ta goetaik leher, eta ya baze bertze ambiente bat, leher jende faten ze, leher jende zertzen ze, ta gan zeo jendea bertze ambiente batean, baze azienda ta baia ez geen bezala, ez.

Beti izan da herria abratsagoa baita ere, izan dira eta denbora ene gaztezutuan ta len ta, zerago Otsagabin, eta ganadero handiak izan dira eh!

Bai solo, beti, ona, herrian berean, gala ez zire kanpo borda gaetan ta,

herrian goinbertze zirriki-zarraka geen bezala etze, ona, etzue (---) ikusten, gan herri artean gala ez. Geen ere bazire bordak, erraten beitaue bordak kanpoko etxe goek, bordak, ta, ona, heben, ni bertze etxe batekoa beiniz, heben etxean etze bordeik, ta hebek beti hobeki bizi zire, etortzen zire gauza guziak etxera, ta etxetik repartitzen zire, baia gu fan behar gindue borda gartra, eta egun oro fan behar gindue borda gartra, ta beti gindaude, pues, aziendekin, aziendak bezala bizi izan gine, ba guk bizi arraстрatua gindue, ta nik beti inbidia nue gorri, ona, bordik etzuenari, ba baizue, bai baizitue egunak (---) eta Otsagin ere gori ze, borda gaetra gizonak eta faten zire baia, ta emaztekiak ere akaso lan denboretan, baia beti etxean baze, herrian baze bertze ambiente bat...

Bazire tiendak, farmazia baita re.

Eta geen ze, ona, eztait sopra azienda klase ta eztait zer zen, beti aziendekin ibili behar, len etze, ona, zerik, etze komodidadeik aziendekin, zerrau batra edo oihan batra iorri ta egoteko, beti etxetra bildus eta beti egualdia tokatzen bihar ere bai (---), batian kontu batekin, bertzian bertzekin, beti azienden atzean, ta guk gindue bizi arraстрatu anitz...

ABAURREGAINA

Segundo Aroztegi eta María Arozarena, Kisketenokoak

– Ni, eta esto ¹... hemengo Kixketena, Abaurreko Kixketena, esto... eta ene izena Segundo Aroztegi. Pues, hemen eta Eguberriak, klaro orain duela berrogei urte, pues, ez du konparaziorik, orain duela berrogei urte Eguberriak izaten ziren puskan pobreago eta hemengo tierran, orain erraten dugu bizia zer dagoela baina ez du konparaziorik ere; orduan bizi ginen pobre, pobre, hori bai eta hiltzen genuen txerria Eguberrietako eta zera, baina ardoa eta likore ta hoietarik apenas ibiltzen zen, aguardiente pixka bat eta koinaka eta gauza hauek arrot eta... Pasatzen genituen igual orain bezain alegre edo... pasatzen genituen geure zerera, geure klasera, pasatzen genituen alegre, klaro, pues, ez bait genuen ezagutu guk lehen gauza hoberik, pues dibertitzen ginen igual orain baino gehiago, konfidantza gehiagoz ere etxeetan, eta elkarrekin orain baino konfidantza gehiagoz orduan.

Ene gazte denboran ez ginen biltzen gure len txire (?), hor liburu horretan dagoen tia horrek, horrek bazekizkien kantu politikak eta Eguberrietako Ama Birjinaren zerak, baina utzi ziren, utzi ziren, zera, ez genuen izan delikadeza zertzeko, hartzeko eta eskribitu kantuak eta... tiak zenbat urte zituen hil zelarik?

Lauretan hogeita bida.

...bida, eta oraindik memoria ona zeukan eta kantatzen zituen.

– Baina galdu da.

– Bai, galdu da, galdu da, bai, ez da zerik, hor bazen estankoan, arestian erran duzun bezala, erran dizunak, zera gia ² zertzeko, pues, hor bazen Ama Birjina bat, bazen, biziki politikak kantuak euskaraz Ama birjina hari, baina galduak dira.

Ene tio batek, ze, hark zekizkien guziak, ene tio batek eta biltzen zituen bere kideko eta gaztexeagoko guziak Ama Birjinaren aitzin... Eguberri aitzineko egunetan eta ensaiatzen zituzten kantuak eta gero Eguberrietan kantatzen zituzten haiek, eta zegoen eginik elizatotto bat ³, eginik zegoen, eta han Ama Birjina, eta horra hotzak izozturik elurrean, hor egoten ziren ensaiatzen haren aitzinean, baina gero guk ez ditugu ikasi, ez ditugu ikasi.

(1) 'Esto', 'eta' eta 'ona' muletila gehienak kendu egin ditugu euskera batuko bertsoan, ulergarritasunaren mesedetan guk uste.

(2) Gia: Telefono-gida, aurkibidea?

(3) Antza denez txikigarritasuna bikoiztua dago kasu honetan: eliza > eliza-to > eliza-to-tto.

Nik adituak ditut anitz, eta zera, baina gazte bait nintzen, pues, ez nuen, ez dut izan enpeinurik eta... Pues, hori, bertzenaz pasatzen genuen orai baino... piska bat zerturik gaude oraingo denboretan, ez dugu elkar aguantatzen, ez da familietan halako, halako unionerik nola lehen, ez, ez, ez da, eta konturekin kanpoko etxera joateko, orain oin (?) behar da atarian, oin behar da.

Lehen ez, lehen sukaldera laister.

– Eta orain txerria hiltzeko garaia edo denbora heldu denean laguntzarik ez da?

– Bai, hori bai, hori kontserbatzen da, familia...

... indarra edukitzeko eta, kontserbatzen da hura hala-hala, baina emeki-emeki ez dakit... akabatuko da komunikazio hori ere azkenean, bai, jada joan da unione hori eta amistade hori, orai ez da traturik hala, ez da traturik, ez da konfidantzarik, denek, ez dakit inbidia edo ez dakit zer harturik daukan jendeak, bertze bizi klase bat, eta orain ez dute traturik zertzen.

– Baina lehen ez al zen herri honetan bizilagun gehiago orain baino?

– Lagun gehiago?, bai, bai, bizi ziren.... Oraindik bada jendea... oraindik ez da...

Gazteria abiatu da kanpora, eta kanpora joanez geroz bertze bizi klase bat, jada etxean oraingoek: telebista, bideoa, eta jateko tenorean ere ez da komunikazio... ez da zerik, unionerik arrato bat elekan egoteko, ez hori, hori segido, eta jada ez da traturik, ez da, lehengo tratu hura falta da. Eta lehenago honek erraten zuena, eguberrietan eta, etxe batetik bertzera joan eta han txokolatadak eta egin, eta musika ifintzen zuten herrikoek igual eta, alegre, ongi, orain ja ⁴, orain ateratzen dira hemendik berant etxetik, herritik hamabiak ondoren ateratzen dira nahi duten tokira eta goizeko seietakoan etxera; nik zer dakit hor non ibiltzen diren. Eta herrian ez da animazio hura, eta ez da alegria hura, ez da...

– Oinez hemendik Otsagira?, eta nondik barna, lhaurrieta...

– Karreteraz, karreteraz, bazen alkoztetto bat ⁵, hor lhaurrietatik Ezkarozera ateratzeko, alkoztetto bat, eta hura ikasi genuelarik, handik, baina bertzenaz, karrika, karretera-karretera, oinez Otsagira, eta dentistarengana, haginena ateratzera ⁶, eta atera hagina baina egunean, baina goiztar buelta eginik handik oinez.

– Zenbat orenetan?

– Zenbat ordutan?, ah, ordua ez dakit, ni orduan joaten nintzen, bai bait zen denda Sanchezenean eta Kanbrarenean, pues, beti zerbait erosten nuen haietan, hara!, handik bada ezagutzen nituen denda haiek eta haietan erosten nuen zerbait ekartzeko, hara!...

(4) Deus ez; ezer ere ez.

(5) Bidezidor; laburbide.

(6) Ekialdeko euskalkien bertze ezaugarri bat dugu aditzizenaren osagarri zuzenak genitiboaren atzizkia hartzea.

- Eta ferietara?
- Ferietara ere behin, behin egon naiz Otsagin, jendea joan zen multzo bat eta ni ere bai joan nintzen Otsagiko ferietara, bai, eta orduan bai, orduan eguna pasatu genuen eta kamioian, kamioi batean joan ginen eta kamioi hartan itzuli ginen guziak, montioan leher ⁷ joan bait ginen koadrila, eta orduan ongi baina bertzenaz neroni bakarrik joateko hemendik hara, ibiliz eta ibiliz etorri inor gabe...
- Eta zer zen feria hura?
- Feria?, pues, feria hartan zen behi eta ardi ere bai, behi eta ardi ere bai, bai, bai, bai, ateratzen zen ardi eta ahuntz eta behi, eta bihor zenbait ere bai, bai, bai, feria zen guzietarik orduan, ni joaten nintzen denbora haietan...
- Eta zein fetxatan edo noiz egiten dute?
- Hori, hori, ni gazte nintzelarik, pues zenbat, nik izanen nituen hamasei urte?, nik orduan?, hamasei urte edo hala ⁸, hamasei-hamazazpi urte nik orduan, egon nintzelarik feria hartan, eta joaten nintzelarik hortzen zertze hartara baita ere, hala hamabortz-hamasei, hamasei-hamazazpi urte horietan.
- Eta noiz galdu zen ba Otsagabiko feria?
- Berantago, ba oraindik berantago izan zen, bai, bai, izan zen berantago oraindik.
- Izanen du, pues, hogeitau urte edo hala, eta apenas, gauza gutia (?) zertu baita, baina ordura arte feria ederrak eta, setiembrean, ez dakizu noiz izaten diren festak, Otsagabikoak?, kanbiaturik daude orain edo?, beti, betiko... toki eta zerean... Orduan izaten ziren feriak ere primaberan eta maiatzean, maiatzean baita ere izaten ziren feriak, bi aldiz.
- Nongo jendea biltzen zen?
- Oh!, herri horietako guzietarik, eta hemendik ere bai, beheitiagotik ere...
- Ba, Aezkoa bailara guzitik, eta gero Zaraitzu, bueno, Erronkaritik eta guzietarik.
- Ademas, toki hartan, karretera hura Sanchezen eta Kanbraren karrika hura guzia... leher jende eta gero ugalde ⁹ bazter horretan, leher jende etaazienda eta, egun propio izaten zen hura...
- Baina bestarik bazen?, musikarik edo halakorik?
- Larrazkenean ¹⁰ bai, eta zera, festak, musika ederra baita ere.

(7) Talde handian; leher=ugari.

(8) Hemen ere aurreko beste galderaren batean bezala elkarrizketatuak ez du galdera zuzen ulertu, baina kontutan hartzen badugu galderen funtsa informatzailea mintzaraztea dela, honelako hutsek ez dute garrantzi gehiegirik.

(9) Ibai; erreka.

(10) Udazkenean.

Ni akordatzen naiz larrazkenekoaz... gero primaberakoan ni ez naiz egon baina larrazkena zen ni egon nintzena.

Dantzariak eta setienbrean eh!, setienbrean.

Eta gero, pues, ziren... pelukeria ere han genuen, hara joan behar genuen pelukeriara ere, eta orduan pelukeriara ez zen nornahi joaten, eta gu, guk etxetik ez genuen permisorik pelukeriara joateko eta joaten ginen estalgunean ¹¹, eta arratsean etxera etorri eta hala egon behar genuen, hala piska bat zerturik, amak ez ikusteko egin genuela zerbait.

Bai, egiten zen orduan oihal, ardien ileaz oihal egiten zen, hariak egin eta oihal, eta ni joaten nintzen han ene barrideko ¹² emazteki bat franko zaharra (---) eta joaten ginen, orduan joaten ginelarik oihalaren egitera, joaten ginen mandoetan igota, joaten ginen, hartan eramaten genituen hariak eta, eta igota joaten ginen mandoetan, eta ni bi edo hiru aldiz edo egonik nago haietan, harekin joanik gara, eta orduan zen, hala zen bizi hura eta, baina bizi, bizi, trankila eta ona, eta orduan ez genduen inorekin inbidiarik, guziok hala genbiltzan, eta orduan ginen denok «amigos».

– Otsagiarrak señoritoagoak al ziren?

– Bai, bai, bai, señoritoak, hemendik Iruñera bezala, diferentzia hori hemendik Otsagira, hemengoak hala, baina gero hara joan eta bertze bizi klase bat.

Otsagiarrak, Otsagiarrak eta Abaurregainakoak... zera ona zuten, tratu ona, baina gazteek eh!, mutil neskatoek, baina Ihurrietan, Ihurrietakoak Otsagabiarekin beti...

Abaurrekoekin ere ez anitz, Abaurrekoekin onak dira Ihurrietakoak!, hala, hala, ez baina Otsagikoak bai, baina Ihurrietakoak ez, Ihurrietakoak beti ziren fanfarroiagoak, bara (---) hala berak tiesoska.

Otsagin zen bertze ambiente bat eh!, Otsagin zen bertze ambiente bat, hara igual nola denbora haietan, pues, hemendik Iruñera bezala.

Badakizu eta zera herri handietan, «villak», eta, pues, titulu hori zuen Otsagabik, titulu hori zuen.

Industria, denda eta horietarik, bai, dendak eta horietarik leher, eta jada bazen bertze ambiente bat, leher jende joaten zen, leher jende zertzen zen, eta han zegoen jendea bertze ambiente batean, bazen azienda eta, baina ez hemen bezala, ez.

Beti izan da herria aberatsagoa baita ere, izan dira eta denbora ene gaztezutuan ¹³ eta lehen eta, zerago Otsagabian, eta ganadero handiak izan dira eh!.

Bai, solo, beti herrian berean, hala ez ziren kanpo borda haietan eta,

(11) Ezkutuan.

(12) Barride: auzo.

(13) Gaztaroan.

herrian hainbertze zirriki-zarraka hemen bezala ez zen, ez zuen (---) ikusten, han herri artean hala ez. Hemen ere baziren bordak, erraten baitiegu bordak kanpoko etxe horiei, bordak, eta hemen, ni bertze etxe batekoa bait naiz, hauen etxean ez zen bordarik, eta hauek beti hobeki bizi ziren, etortzen ziren gauza guziak etxera, eta etxetik repartitzen ziren, baina guk joan behar genuen borda hartara, eta egun oro joan behar genuen borda hartara, eta beti geunden aziendekin, aziendak bezala bizi izan ginen, ba guk bizi arrastratua genuen, eta nik beti inbidia nuen horri, bordarik ez zuenari, bai baitzuen, bai baitzituen egunak (---), eta Otsagin ere hori zen, borda haietara gizonak eta joaten ziren baina, eta emaztekiak ere akaso lan denboretan, baina beti etxean bazen, herrian bazen bertze ambiente bat...

Baziren dendak, farmazia baita ere.

Eta hemen zen, ez dakit sobera azienda klase eta ez dakit zer zen, beti aziendekin ibili behar, lehen ez zen zerik, ez zen komodidaderik aziendekin zerrau batera edo oihan batera igorri eta egoteko, beti etxeetara bilduz eta beti eguraldia tokatzen bihar ere bai (---), batean kontu batekin, bertzean bertzerekin, beti azienden atzean, eta guk genuen bizi arrastratu anitz...